

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

354 zb.
www.getxo.eus

>> 2021eko Martxo

Nabarmen^{tze}koak

> Gazteentzako tailerren eta ikastaroen eskaintza berria martxotik uztailera

> "Nahi dudalako!" kanpaina

> "Txiki Baskardo" Haurrentzako IV. Kontakizun Lehiaketa

11 eta 30 urte bitartekoentzat

Gazteentzako tailerren eta ikastaroen eskaintza berria martxotik uztaiera

Udaleko Gazteria Zerbitzuak martxotik uztaiera bitartean eskainiko diren jarduerak, ikastaro eta tailerretan izena emateko epea ireki du. Jardueren eskaintza 11 ikastaro eta tailerrek osatzen dute, 11 eta 30 urte bitarteko gazteentzat. 4 tailer gaztelaniaz eskainiko dira eta 7 euskaraz, baina euskara erabat menperatzen ez duten gazteak ere parte hartzea animatu nahi ditu Gazteria Zerbitzuak, bakoitzak bere mailan euskararen erabilera sustatzeko. Jarduerak nagusiki praktikoak direnez, hizkuntza ez da komunikaziorako oztopo izango. Aurretik ere eskaini diren jarduerekin batera (elektrizitatea, elikagaien manipu-

lazioa, robotika, etab.), jarduerak berriak ere eskainiko dira, hala nola, etxebizitzatailerria edo joskintza jasangarria. Josteko tailerra Wanted programako parte-hartzaile izan diren María Merello Bayok eta Andrea Monrocle Garciak emango dute. Izenematea telefonoz (944.660.353) edo posta elektronikoz (gaztebulegoa@getxo.eus) egin daiteke, izena eta ikastaroa edo tailerra adieraziz, harremanetarako telefono batekin batera (ahal dela, mugikorra). Internet bidez (www.getxo.eus/gazteria) eta Gazte Informazio Bulegoan (Tangora etxea, Algortako hiribidea, 98) ere egin daiteke.

TAILERRA	ADINA	DATA ETA ORDUA		ORDUAK	LEKUA	EDUKIERA
KUSTOMIZATUTAKO POLTSAK EUSKARAZ	11-17	MAIATZAK 21	18:00-20:00	2	ALGORTAKO GAZTELEKUA	Tailer honetan plastikozko poltsak erabiltzeari utziko diogu. Kotoizko poltsetan teknika desberdinak egiten ikasiko dugu.
ELIKAGAIEN MANIPULAZIOA GAZTELANIAZ	18-30	MAIATZAK 7	17:00-20:00	3	RKE	Agiria emango da.
ERROBOTIKA EUSKARAZ	11-17	MARTXOAK 23 ETA 30	18:00-19:30	3	ALGORTAKO GAZTELEKUA	Robotak Makeblockekin programatzea. Robot bat programatu beharko dute erronka batzuk konpontzeko.
ZEINU HIZKUNTZA GAZTELANIAZ	18-30	APIRILAK 12, 14, 19, 21, 26, 28 ETA MAIATZAK 3	17:30-19:30	14	online	Zeinu hizkuntzaren oinarriko ikastaroa. Berlaratze-ziurtagiri emango da.
ELEKTRIZITATEA EUSKARAZ	11-17	EKAINAK 11	18:00-20:00	2	ROMOKO GAZTELEKUA	Elektrizitatea era errezean ulertuko da: etxeko koadro elektrikoan dauden elementuak (bakoitzaren zeregina eta ezaugarriak).
SURFA EUSKARAZ	18-30	EKAINAK 19	12:00-14:00	2	BARINATXE HONDARTZA	Ikasi modu kontrolatu batean surf egiten, arraun eta zutik jartzeko tekniken bidez. Luzaketak eta beroketak.
ETXEBIZITZA GAZTELANIAZ	18-30	APIRILAK 22	17:30-20:00	2,5	RKE	Alokatzeko orduan: Zeintzuk dira nire eskubideak? Badakizu kontratuan agertu behar dena? Inmobiliariak, VPO...
ESKALADA EUSKARAZ	18-30	UZTAILAK 17	10:30-12:30	2	URDULIZKO HAITZAK	Eskaladaren segurtasunaren, montaketaren eta desmontaketaren oinarriko kontzeptu guztiak ikasiko dituzu, egun bikaina igarotzen eta baldintza seguruenetan.
KAYAKA EUSKARAZ	11-17	UZTAILAK 10	11:00-13:00	2	KIROL PORTUA	Aurrera egiteko eta norabidea zuzentzeko oinarriko teknikak, baita atzerantz paleatzeko eta frenatzeko ere, edertasunaz gozatuz.
JOSKINTZA JASANGARRIA GAZTELANIAZ	11-13	MARTXOAK 20, 26 ETA 27	18:00-20:00	8	ROMOKO GAZTELEKUA	Zure motxila sortu gustuko dituzun oihalekin. Ikasi bererabiltzen, berziklatzen eta murrizten era dinamikoan.
KAMISETEN ESTANPAZIOA EUSKARAZ	11-17	MARTXOAK, 5, 6, 12 ETA 13	5 ETA 12 17:30-20:30 6 ETA 13 17:00-20:00	12	ALGORTAKO GAZTELEKUA	Kamisetetan estanpatuko diren mezuen inguruan lan egingo da. Parte-hartzaile bakoitzak kamiseta bat baino gehiago estanpatuko du, batzuekin erakusketa bat egiteko.

* Euskaraz ez badakizu ere, animatu

BEKAK SARIAK

*Cervantes Institutuan prestakuntza praktikoko 44 beka, unibertsitateko tituludunentzat. Urtebeteko iraupena eta 825€/hileko. Titulua azken bost urteetan lortzea. Eskararak: martxoaren 10era arte. Informazioa: Cervantes Institutua. tel.: : 91 436 76 00, 02/17ko 41. EAO eta <https://bit.ly/2Z74k7X>

*ON ZIENTZIA zientzia eta teknologiar buruzko bideo-lehiaketa, Donostia International Physics Center eta Elhuyarrek euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez antolatua, zientzia eta teknologiaren balio positiboaren eta aurrerapenaren berri emateko. Bideoarik onena: 3.000€; onena euskaraz, 2.000€; eta gazteen saria (18 urtetik beherakoak), 1.000€. Bideoak emateko epea: apirilaren 21ean. Informazioa: Elhuyar Fundazioa. Tel.: 943 363 040, on@elhuyar.eus eta <https://bit.ly/3dLacdn>

Romoko Gaztelekuaren programazioa

Martxo

Hilak 5, ostirala: TXAPELKETA: FIFA
Hilak 7, igandea: EKINTZA: M8
Hilak 9, asteartea: SUKALDARITZA: YOGURTA FRUTA ETA TOPINGSEKIN
Hilak 13, larunbata: IRTEERA: GUGGENHEIM MUSEOA
Hilak 17, asteazkena: TAILERRA: BUZTINA
Hilak 20, larunbata: TAILERRA: JOSKINTZA TAILERRA
Hilak 23, asteartea: EKINTZA: ARRAZAKERIA
Hilak 26, ostirala: TAILERRA: JOSKINTZA TAILERRA
Hilak 27, larunbata: TAILERRA: JOSKINTZA TAILERRA
Hilak 31, asteazkena: TAILERRA: BOTILAK MARGOTU

Algortako Gaztelekuaren programazioa

Martxo

Hilak 4, osteguna: ASANBLADA: APIRILEKO PROGRAMAZIOA
Hilak 5 eta 12, ostirala, eta hilak 6 eta 13, larunbata: TAILERRA: KAMISETEN ESTANPAZIOA
Hilak 18, osteguna: JOLASA: ZELAI ERREA
Hilak 23 eta 30, asteartea: TAILERRA: ROBOTIKA
Hilak 26, ostirala: TAILERRA: IRRATI TAILERRA
Hilak 27, larunbata: IRTEERA: LAUREN GETXO ZINEMAK

Bizkaian euskaraz eskaintzen diren Babxergo zein Lanbide Heziketako ikasketak klik batean.

Unibertsitateko euskarazko ikasketak modu errazean kontsultagai.

Zabandu ateak lan merkatuari!

Euskaraz ikasi eta CI irabazi.

Euskara curriculumak aberasteko giltza.

Nahidudalako.eus

Zure iritzia ezinbestekoa da guretzat. Sartu www.nahidudalako.eus webgunean, galdetegi bete eta **sari zoragarriak irabazi.**

- 1.** iPad (8th generation) Wi-Fi 32 GB
- 2.** HOMEPOD Bozgorailu inteligentea
- 3.** Kultura eta kirol materiala erosteko operari txartela (200€)

“Nahi dudalako!” kanpaina

DBHko ikasketak amaitutakoan ikasleek euskaraz egiten jarraitzea da, beste urte batez, abian jarritako **Nahi dudalako!** leloeko kanpainaren helburua. Kanpaina Bizkaiko 15 udalengan, tartean Getxokoan, eta hiru mankomunitatetan eramango da aurrera, Foru Aldundiarekin, Alkarbiderekin eta EUDELekin elkarlanean. Udalak DBHko 3. eta 4. mailako ikasleen 1.470 familiari ekimenaren eta www.nahidudalako.eus webgunearen berri ematen dituen eskutitza bidaliko die. Informazioaz gain, web gunean sartu eta inkesta betetzen duten gazteek hainbat sariren zozketan parte hartuko dute, hala nola, iPad (8th generation) Wi-Fi, HOMEPOD bozgoragailu adimendua edo kultura eta kirol materiala erosteko operari txartela (200€).

“Txiki Baskardo” Haurrentzako IV. Kontakizun Lehiaketa

Apirilaren 23ra arte aurkeztu ahal izango dira **Txiki Baskardo** Haurrentzako IV. Kontakizun Lehiaketaren beste edizio batean, Ramiro Pinilla idazle getxoztarraren memoria mantentzeko eta literatura sormena bultzatzeko DBHko lehenengo mailako ikasleen artean. Kultur Etxeak deituta, gazteek ikastetxeen bitartez edo beren kabuz parte hartu ahal izango dute. Bi modalitateetan, lanek originalak eta argitaragabeak izan behar dute (guztiz edo partzialki), ezingo dute aurreko lehiaketetan saririk jaso izan, eta euskaraz eta/edo gaztelaniaz idatzita egon daitezke.

Lanak Kultur Etxera bidali beharko dira. Gutunazalean **Txiki Baskardo Haurrentzako Kontakizun Lehiaketa** idatzi beharko da edo posta elektronikoki bidez bidaltzea, villamonte.liburutegia@getxo.eus helbidera gailan lelo bera jarrita. Epaimahaiak finalista bakarra aukeratuko du aurkeztutako 20 kontakizun edo zati bakoitzeko. Erabakia apirilaren 23an, Liburuaren Egunean, jakinaraziko da. Finala ekainaren azken astean egingo da. Informazioa eta oinarriak: <https://bit.ly/2XSQvqE>